

REAS Euskadiren presidentea den Marian Diezi elkarrizketa

1. REAS Euskadik zergatik parte hartzen du aberastasunaren bidezko banaketari buruzko behatoki batean?

REAS Euskadi 80 enpresa eta erakundek baino gehiagok osatzen dute, eta guztiek helburu bera dute: guztien artean beste ekonomia bat eraikitzea, egungo ekonomia kapitalista eta heteropatriarkala ez den beste ekonomia bat eraikitzea, pertsonen eta planetaren bizitzaren jasangarritasunaren zerbitzura dagoen ekonomia bat eraikitzea, beste balio batzuetan oinarrituta: elkartasuna, ekitatea, naturaren zaintza, lankidetzak, irabazi-eza, gure inguruarekiko konpromisoa, elkarri laguntzea, hau da, gure Ekonomia Gutuneko printzipioak.

1997. urteaz geroztik, Reas Euskadi sare bat izateaz gain, egungo tokiko sistema eta sistema globala eraldatzen lagunduko duen mugimendu baten bultzatzaile ere izan nahi izan du, ekimen ekonomiko alternatiboak sortuz eta sendotuz. Ondorioz, urte hauetan, ekonomia solidarioa hedatzen joan da eta benetako alternatiba bihurtu da. Eta benetako alternatiba gisa existitzen dela diodanean, azpimarratu nahi dut Ekonomia Solidarioaz ez garela ari ideia edo kontzeptu gisa, baizik eta zirkuitu ekonomiko guztietan agertzen diren askotariko jarduera ekonomiko eraldatzaileak daudela, eta horiek erakusten dutela beste printzipio bidezkoago eta jasangarriago batzuetan oinarrituta gerta, bana, kontsumi eta, bereziki, bizi daitekeela. Gaur egun, gure sareko enpresak sektore hauetan daude: energia berriztagarrien sorkuntza eta banaketa, finantza etikoak, agroekologia eta elikadura, zainketak, etxebizitza kooperatiboak, bidezko merkataritza, hondakinen berreskuratze eta birziklatzea, kultura, komunikazioa, etab.

Urteak daramatzagu defendatzen eta eraikitzen, gure jardunbideetatik abiatuta, ekonomia alternatibo bat, pertsonak, eta ez merkatuak, antolaketa ekonomiko eta sozialaren erdigunean kokatzen diren eredu baterantz doana, non ekonomiak funtzio instrumentala hartzen duen, herritarren parte-hartze eta erabakitze esparru demokratikoei lotuta. Eta hori egiten dugu konbentziturik gaudelako horrela bakarrik lortuko ditugula bizi-baldintza duinak eta bidezkoak guztiontzat.

Behatoki honetan parte hartzeak zerikusia du, hain zuzen ere, aipatu ditudan balio eta printzipio horiekin. Uste dugu ezinbestekoa dela alternatiba ekonomiko eta sozialak eraikitzeko prozesuan pertsona guztien duintasun, eskubide eta aukera berdintasuna aitortzea, haien arteko desberdintasunak onartuz eta errespetatuz. Halaber, uste dugu ezinbestekoa dela gizartean beharrezkoak diren lan guztiak birbanatzea, merkatutik pasatzen ez direnak barne, baina funtsezkoak dira emakumeen eta gizonen bizi-kalitaterako. Era berean, uste dugu irabazi-eza aberastasuna birbanatzeko dugun konpromisoaren bermea dela eta, gainera, jarduera ekonomikoak gure inguruan dituen onurak elkarlaneko eta elkartasuneko proiektu berrietan berrinbertitzen direla. Konpromiso horiek guztiak Ekonomia Solidarioaren Printzipioen Gutunean jasota daude.

2. Zergatik dira arazo aberastasun-metaketa eta ondorioz sortzen duen desberdintasuna?

Gaur egungo kapitalismoaren desberdintasunari eta nahi ez diren beste ondorio batzuei buruzko datuak etengabeak dira eta urtez urte mantentzen dira. Azken txostenen arabera, ezberdintasuna ez da muturrekoa bakarrik, kontrolatik kanpo dago. Ehunka milioi pertsona pobrezian bizi dira elite aberatsenek irabazi izugarriak jasotzen dituzten bitartean. Munduan ez da inoiz hainbeste aberats egon, eta bere aberastasunak errekor historikoa lortu du. Bitartean, munduan pobrezia-egoera handiengan dauden pertsonak are gehiago pobretu dira. Egungo eredia hain da jasanezina, ezen ez baita gai pertsona guztien premiarik oinarritzkoenetako bat asetzeko ere: haien elikadura. Munduko goseak gora egin du 2014tik eta 690 milioi pertsonari eragiten die.

Reas Euskadin uste dugu datu horiek ez direla kasualitatea, pairatzen dugun sistema kapitalistaren ondorioa direla eta, horrekin batera, pentsamendu neoliberalarena, norberaren bizitzari balioa kentzea lortu baitu. Gure munduko antolakuntza osoa ekoizpen, banaketa eta kontsumo prozesua merkatuaren mende egotearen inguruan dabil, baita bizitza indibidualismoaren eta norberekoikeriaren balioen mende egotearen inguruan ere. Eredu kapitalistak pertsona aberatsenei egiten die mesede, kapitala sistemaren motore gisa menderatzen eta pilatzen laguntzen du, eta gero eta desberdintasun handiagoak eta mundu osoko milioika pertsona eta eskualde pobretzen ditu.

Desberdintasun horren arrazoia da kapitalismoa enpresentzako ahalik eta irabazirik handiena bilatzera bideratzen dela, kapitalarentzako onurarik handiena bilatzera; beraz, ez du batere kezkatzen aberastasunaren banaketak, ezta kalitatezko enplegu gehiago sortzeak ere, are gutxiago planetan bizi garen pertsonen, emakumeen eta gizonen bizitza justua eta jasangarria bermatzea. Sistema horretan, pertsonak tresna hutsak baino ez gara, subjektu ekonomikoak, ekoizle edo kontsumitzaile gisa ulertuta, eta alde batera uzten ditugu guztientzako bizitza osasungarri eta duina lortzen laguntzen duten funtsezko dimentsioak. Eraitza kapitalismoaren eta bizitzaren iraunkortasunaren arteko funtsezko kontraesana da.

3. Zein dira planteatutako irtenbideak?

REAS Euskadiren proposamena oso argia da. Gure gizarte lokala eta mundu globala errotik eta behetik eraldatu nahi ditugu. Ekonomia Solidarioa, funtsean, jardunbide eraldatzailea da, aurrez aurre jotzen baitu eredu kapitalistarekin; izan ere, pertsonen, haien beharrei, gaitasunei eta lanari kapitalaren eta metaketaren gainetik dagoen balioa ematen die eta, aldi berean, eredu sozioekonomiko birbanatzaileagoa eta bidezkoagoa aldarrikatzen du. Uste dugu beste gizarte-mugimendu batzuekin batera alternatiba horren alde lan egitea funtsezkoa dela trantsizio sozial eta ekologikoa bultzatzeko.

Covid19aren pandemiak, beraz, ekonomia kritikoen eta gizarte-mugimenduek urteak daramatzagun zerbait jarri du puri-purian: gure gizartearen eta gure munduaren funtzionamenduak orain arte izan dituen zutabeak birplanteatzeko premia larria.

Korronte alternatiboetatik ondorio partekatuak atera beharko balira, besteak beste, honako lehentasun hauek aipatuko genituzke: pertsona guztiak zainduko dituen

gizarte berri bat eraikitzen hastea – bereziki zailtasun handienak dituztenak –; hezkuntzako, osasuneko eta gizarte-babeseko sistema publikoak indartzea; gure eguneroko bizitzarako funtsezkoak diren hurbileko zerbitzu eta produktuei arreta ematea; eta, jakina, trantsizio ekologikoa bultzatzea, gero eta premia handiagoz aurre egin behar diegun erronkei aurre egiteko.

Amaitzeko, enpleguaren krisiari buruzko aipamen zehatzagoa egin nahi nuke, egungo pandemiak areagotu duen krisia. Uste dugu azken urteotan bi gai garrantzitsu jarri direla agerian. Lehena, herritartasunaren, eskubideen iturria pertsona dela, eta ez enplegua. Bigarrena, soldatapeko enplegutik harago askoz lan gehiago dagoela: zaintza-lana, lan komunitarioa, etab.

Enpleguak gure gizarteetan duen eginkizuna zalantzan jartzeak aldaketa garrantzitsuak proposatzera eraman behar gaitu, gizarte-eredu justuago, iraunkorrago eta demokratikoago baterantz igarotzeko aukera emango digutenak: enpleguarekin zuzenean lotuta ez dauden gizarte-eskubideak artikulatzeko modu berriak, lan guztien balorazio sozial eta ekonomiko berria (produktiboak eta ugalketakoak) eta banaketa berria, bai eta aberastasuna birbanatzeko eta gizarte-prestazioak eta gizarte-zerbitzuak finantzatzeko beste tresna batzuk ere.

Eztabaida horietako bat, zalantzarik gabe, tresna berriak sartzearen garrantziaren ingurukoa da, hala nola oinarrizko errenta, lanaren eta soldataren arteko lotura apurka-apurka eteteak eta enpleguaren prekarizazioak bultzatutako eztabaida, baina baita zainketen krisiak ere. Testuinguru horretan, Estatuak herritar guztiei bermatu behar dizkien bizi-minimo ukaezinak ezartzeko oinarrizko helburua aberastasunaren banaketan laguntzen duen tresna bat da, eta espekulazioari, metaketari eta kontsumo zoroari amaiera emango dieten beste neurri batzuekin konbinatu beharko da. Baina, era berean, oinarrizko errenta oso tresna baliogarria da heteropatriarkatu kapitalistaren aurka borrokatzeko, giza bizitzaren zaintzarekin lotutako lanak argi eta garbi ikusarazteko; lan horiek saihestezinak dira eta guztioi dagozkigu.